

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Radio Nacional-en 75. urteurreneko ospakizunean parte hartu du

Antoniutti parkean jarritako erakusketa bat bisitatu du, eta elkarrizketa bat egin diote bertatik

Viernes, 16 de marzo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulok "RNE contigo" erakusketa ibiltaria bisitatu du gaur goizean. Erakusketa hori irratia hori sortu zela 75. urteurrena ospatzen dela eta antolatu da, eta gaur ezagutu daiteke Iruñeko Antoniutti parkean. Erakusketa bisitatzeaz gain, Lehendakariak toki horretatik bertatik egindako albistegi batean parte hartu du zuzenean.

Ekimen honekin, RNEk irratia herritar guztiei zabaldu nahi izan die, zerbitzu publiko hori barnetik ezagutu dezaten. Horretarako, irratia 140 metro koadroko plataforma bat jarri du; horren barnean daude: emisioak egiteko estudio bat, kazetariak albisteak egiteko gune bat eta irratia iren iragana, orain eta etorkizunari buruzko erakusketa elkarreragilea.

Zuzeneko programa berezia

Programazio bereziari dagokionez, bisitariak bertatik bertara egiaztatu ahal izan dute nola egiten duen Nafarroako RNEko taldeak irratsaioa bat zuzenean. Zehazki, Lehendakaria 09:00etako albistegian elkarrizketatu du zuzenean irratiko zuzendari Juan Yeregui. Goizean zehar, programazio berezi bat egin da, eta bertan agintariak, kultura nahiz kiroltako ordezkariak eta Nafarroako RNEko langile ohiek parte hartu dute. San Francisco ikastetxe publikoko ikasleak eta bertaratu diren irratizaleak ere programa bereziaren protagonistak izan dira.



Barcina Lenedakaria elkarrizketako une batean. Ezkerrean, Nafarroako RNEko zuzendari Juan Yeregui, eta eskuinean Iruñeko alkatea.

Erakusketa

Bisitariari uneoro ukipen-pantaila, bideo eta audioen bidez elkarreragiten uzten zaion erakusketak, irradiaren orainalditik hasi, etorkizunera joan eta iraganetik bidaiatzeko aukera eskaintzen du. Egungo gunean RNEaren 6 markak ezagutu daitezke (Radio Nacional, Radio Clásica, Radio 3, Radio 4, Radio 5 y Radio Exterior); 5.1 soinua probatu; albistea egiteko prozesua jakin; albistegi bat grabatu edo RTVEko pertsonaia gogokoenarekin argazki bat atera.

Gainera, bisitariak arrasto handiena utzi dieten historiako momentuen soinuak hauta ditzakete, edo jaio zenean zer emititu zen jakin, edo irradiaren etorkizuna nolakoa izango den jakin, iPad eta iPhone-rako RNEren azken aplikazioen bidez.

Erakusketa ibiltari hau Espainiako 50 hiritan izango da hiru hilabetez. Iruñean, gaur bisita daiteke, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.



Erakusketa batean RNEren iragana, oraina eta etorkizuna azaltzen dira.